Oinarrizko datuak, hizkuntzen ezagutza eta erabilera herrian

Hizkuntzen ezagutza eta erabilerari buruzko oinarrizko datuak ezagutzeko biderik errazena da biztanleriaren errolda kontsultatzea (**Eustat**en webgunean, *Gizartea* orriko *Euskara, Kultura, Gazteria* atalean). Jarraian jaso ditugun estekak baliatuz, ondorengo datuak aurkituko dituzue (herria aukeratu behar duzue):

- **Hizkuntza-gaitasuna.** Euskararen ezagutzari buruzko hainbat taula topatuko ditugu hemen. Gainera, ezagutza mailak urteetan zehar izan duen bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

  Datu-bankua *2 urteko biztanleria, lurralde eremuaren eta euskara-maila orokorraren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

- **Hizkuntza-jabekuntza**. Lehen hizkuntza edo *ama-hizkuntza*ri buruzko (euskara, gaztelania, biak edo besteren bat) datuak topatuko ditugu hemen. Gainera, bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

  Datu bankua *Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, ama-hizkuntzaren eta sexuaren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

- **Hizkuntzen erabilera.** Etxeko zein kaleko hizkuntza-erabilerari buruzko datu ugari topatuko ditugu hemen (herria bilatu behar duzu zerrendan). Gainera, etxeko erabileraren bilakaerari buruzko datuak kontsulta ditzakegu hemen:

  Datu-bankua *Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, etxeko hizkuntzaren eta sexuaren arabera* (Zenbait aldagai aukeratuta egin daiteke kontsulta).

Beste zenbait datu, hizkuntzen ezagutza eta erabilera herrian

Zenbait udal zerbitzutara (kultur aniztasuna, euskara...) jo dezakegu bestelako hizkuntzen presentzia, ezagutza eta erabilerari buruzko datu gehiagoren bila.

Hizkuntzak erabiltzeko aukerei buruzko datuak

Bestalde, komeni da jakitea eskolaz kanpo euskara, gaztelania eta bestelako hizkuntzak erabiltzeko ikasleek dituzten abaguneak; hau da, hizkuntza horietan jarduteko aukerak, besteak beste…

- Jarduera antolatu iraunkorrak (eskolak, ikastaroak, kirol-jarduerak, tailerrak...)
- Gune eta talde egonkorrak (liburutegia-mediateka, haur-txokoa, gaztelekua, astialdi taldeak...)
- Ohiko bilgune “naturalak” (parkea, plaza, patioa, pilotalekua, kantxak…)
- Jarduera puntualak: ekitaldiak, emanaldiak, ikuskizunak, jaialdiak...

Halaber, interesgarria da jakitea ikasleek zein neurritan aprobetxatzen dituzten aukera horiek.

Erabiltzeko aukera horiei buruzko datuak batzordekideek “estimatzea” izan daiteke datu hori lortzeko modurik errazena. Estimazio hori sendoago izan dadin lankideen eta guraso

elkarteko kideen pertzepzioak ere aintzat hartzea komeni. Udaleko zenbait atal edo zerbitzutan (euskara, kultura, kirola, gazteria…) galdetuz gero datu zehatzagoak lortu ditzakegu. Gainera, eskolaz kanpoko jardueretan hizkuntzak erabiltzeko abaguneak ikasleek zein neurritan baliatzen dituzten zehatzago ezagutu nahiko balitz inkesta bat egin zitekeen ikasleen artean.

Beste zenbait datu esanguratsu

Udaletxe askok herriko hizkuntza-egoera zehaztasun handiz islatzen duten ikerketa soziolinguistikoak eginak dituzte. Horiengana jo daiteke zenbait datu zehatz eta esanguratsu jasotzeko. Esaterako:

- hizkuntzen ezagutza edota erabilera ikastetxetik gertu dauden auzoetan
- hizkuntzen ezagutza eta erabilera eskola-adineko haurren eta gazteen artean
- hizkuntzen ezagutza eta erabilera gure ikasleen gurasoen belaunaldian (25-45, esaterako)

Gainera, ondorengoei buruzko datuak lortu nahi izanez gero, balia ditzakegun informazio iturrien eta tresnen erreferentziak aurkituko ditugu *Diagnostikorako beste tresna batzuk* eranskinean (155 or.):

- ikasleen eskolaz kanpoko hizkuntza-erabilera, zenbait egoera eta jardungunetan
- kale-erabileraren datuak: oro har, adin taldeen arabera. Horren bilakaera azken urteotan
- herritarren hizkuntza-jarrerak eta -iritziak: oro har eta adin-taldeen arabera